

aurkibidea

1. Eraikal Hamaika deialdiko laguntzak ebatzi dira

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioko Sailak **Eraikal** Programara (**Eraikal Hamaika**) 2009ko deialdian aurkeztutako proposamenetarako laguntzen ebazpena eman du. Aipatu laguntzak 2009ko uztailaren 29an Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioko Sailburuak emandako agindu bidez deitu ziren eta laguntzen xedeak dira kalitatea kudeatzeko sistemen ezarpena eta hobekuntza sustatzea, iraunkortasuna sustatzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko bizitegi-eraikuntzaren sektoreko enpresei berrikuntzan laguntzea.

Deialdi honetan hamabost agentek eskuratuko dituzte esleitutako 1.350.000 euroko diru-laguntzak. Proposatutako proiektu anitzen artean banatu dira laguntzak.

Aurretik egindako deialdietan **Eraikal**-en parte hartu duten erakundeez gain, oraingoan bi agente berri barne

hartu dira programan: **EKLA** (Euskal Komunitateko Laborategi Akreditatuen Elkarte) eta **CIDEMCO** Zentro Teknologikoa.

Eraikal-en “ohiko” proiektuez gain, hala nola kudeaketa-sistemen ezarpena, prestakuntza- eta hedapen-ekin-tzak, energia-eraginkortasunarekin eta iraunkortasunarekin zerikusia duten bi proiektu azpimarratu behar dira: energia kudeatzeko sistema baten gida garatzea eta eraikuntzak bere bizitzaren zikloan ingurumenaren gainean duen eragina kuantifikatzeko metodologia garatzea. Aipagarria da ere bi gremioen elkar-teek aginte koadro integrala ezartzeko aurkeztu dituzten bi proiektu.

Ondorengo taulan deialdi berri honetan onartu diren proiektuak adierazi dira, erakundearen eta proiektu motaren arabera:

1. **Eraikal** Hamaika deialdiko laguntzak ebatzi dira
2. Jardunaldia: “EAEn eraikuntzaren cluster bat sortzeko lanean”
3. “Berrikuntzaren kudeaketa bizitegi-eraikuntzaren sektorean” izeneko jardunaldia antolatu zen
4. Jardunaldia: “OHSAS 18001 ziurtagiriak jaso dituzte Afonvi-ko bost enpresa elkartekidek”
5. “Aribide egokien memoriaren aurkezpena” izeneko jardunaldia antolatu zen
6. Argitalpena: “**Eraikal**-en hamar deialdi (1998-2008). Agente sustatzaileen esperientziak”
7. Aholkularitza enpresek eraikali buruz duten iritzia
8. Itaun postontzia

1. irudia: Diruz lagundutako proiektuak agente sustatzaileen arabera

ERAKUNDEA	PROIEKTUAK
AEIEB	• UNE-EN ISO 9001 ezarpena eta ziurtapena 7 enpresatan
AEXAL	• Sentikor bihurtzeko tailerrak eta jardunbide egokien gida • Kudeaketa-sistemen ezarpena eta ziurtapena 7 enpresatan
AFONVI	• K21-ren ezarpena eta ziurtapena 2 enpresatan • Kudeaketa-sistemen ezarpena eta ziurtapena 5 enpresatan • Segurtasunaren eta laneko arriskuen web ataria • Enpresa instalatzaileentzat aginte koadro integrala garatzea • 8 trebakuntza-ikastaro • 5 hedapen-ekintza
AMICYF	• Kudeaketa-sistemen ezarpena eta ziurtapena 9 enpresatan

ENTIDAD	PROYECTOS
ASCOBI	• Kudeaketa-sistemen ezarpena eta ziurtapena 20 enpresatan • Prebentzioan sentikor bihurtzeko programa • Obretako seinale prebentiboei buruzko proiektua • Eraikuntza eta birgaitze iraunkorrari buruzko ikastaroa • Energia kudeatzeko sistema ezartzeko gida
ASCONGI	• Kudeaketa-sistemen ezarpena eta ziurtapena 3 enpresatan
AVE	• Kudeaketa-sistemen ezarpena eta ziurtapena 13 enpresatan • Eraikuntza eta birgaitze iraunkorrari buruzko ikastaroa
CIDEMCO	• Eraikuntzak ingurumenaren gainean duen eragina kuantifikatzeko metodologia garatzea eta ezartzea
COATBI	• Eraikuntza-obretan kalitate kontrolaren kudeaketarako tresna gaurkotzea • Obretako proiektuen memoria idazteko tresna
COATG	• UNE-EN ISO 9001 ezarpena eta ziurtapena enpresa baten
COAVN	• Kudeaketa-sistemen ezarpena eta ziurtapena 14 arkitektura-bulegotan • Auditoriei buruzko 2 ikastaro
COIIB	• Kudeaketa-sistemen ezarpena eta ziurtapena 4 enpresatan
EKLAE	• Laboristak eta fondistak trebatzea
INSTAGI	• K21-ren ezarpena eta ziurtapena 6 enpresatan • 10 hedapen-jardunaldi • Kostuak kalkulatzeari buruzko eta prebentzioari buruzko trebakuntza • Gida bat garatzea • Aginte koadro integralaren bitartez estrategia zabaltzea • Kudeaketa-sistemen ezarpena eta ziurtapena 5 enpresatan • UNE-EN ISO 9001 ezarpena eta ziurtapena 24 enpresatan
LABEIN	• Bizitegi-eraikuntzaren sektoreak EAEn duen bilakaeran Eraikal-ek duen eragina • Sektorean berrikuntzaren sustapena, informazio teknologikoko zerbitzuen bitartez • Sustapen- eta hedapen-jardunaldiak • “Eraikuntza moldagarri eta iraunkorra” izeneko biltzarra antolatzea

2. irudia: Diru-laguntza- ren laburpen- koadroa proiektu- tuen arabera	ERAIKAL-11 DIRU-LAGUNTZEN HELBURUAREN LABURPEN-KOADROA		
		Enpresa kopurua	Diru-laguntzaren portzentaia gaiaren arabera
	Kudeaketa-sistemak eta ekodiseinua ezartzea		
	ISO 9001	51	
	ISO 14001	12	
	ISO 9001+ISO14001	8	
	OHSAS 18001	9	
	ISO 9001+OHSAS 18001	1	
	ISO 9001+ISO 14001+OHSAS 18001	13	
	ISO 14001+OHSAS 18001	6	
	UNE 150301	4	
	ISO 9001 + UNE 150301	2	
	ISO 14001+UNE 150301	2	
	Guztira	108	%49,69
	Iraunkortasuna		
	Guztira	1	%4,86
	Enpresa txikiei bideratutako jarduerak		
	K-21	8	%1,05
	Guztira	8	
	Trebakuntza/Hedapena		
	Guztira	39	%14,96
	Segurtasunean sentsibilizatu		
	Guztira	2	%2,31
	Gidak/Tresnak		
	Guztira	7	%14,07
	Proiektuak kudeatzea		
Guztira	13	%13,06	
GUZTIRA		%100,00	

2. Jardunaldia: "EAEn eraikuntzaren cluster bat sortzeko lanean"

Urtarrilaren 14an izan zen "EAEn eraikuntzaren cluster bat sortzeko lanean" jardunaldia, Bilboko Euskalduna Jauregian. Arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara luzatu zen jardunaldia eta 80 parte-hartzaile inguru bertaratu ziren.

Euskadin Eraikuntzaren Clusterra sortzeko asmoa jakinarazi nahi zitzaion eraikuntzaren sektore osoari aipatu jardunaldiaren eskutik; xede horrekin, Eraikuntzako Berrikuntza/Industrializazioaren Foroan hasitako lanari jarraipena eman nahi izan zaio, bai eta clusterra gidatuko duten eragileak ezagutu ere.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol Zuzendaritzak eraikuntzaren sektore osoa barne hartuko duen ekimen baten aldeko apustua egin du. Sektoreko balio-kateko enpresei luzatu zitzaion deialdia, bai eta aurretik Eraikuntzako Berrikuntza/Industrializazioaren Foroak egindako bileretan parte hartu zuten eragile guztiei ere:

eraikuntza-enpresak, eraikuntza-materialen enpresa hornitzaileak, arkitektura estudioak, teknologia zentroak, unibertsitatea, gremioen elkarteak eta enpresarien elkarteak.

Honako txosten hauek aurkeztu ziren eta honako pertsona hauek parte hartu zuten jardunaldietan:

- Cluster proiektuari heldu eta garatzen jarraitzea - **Ignacio de la Puerta**, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrolerako Zuzendaria.
- Cluster baten kide izateak dituen abantailak eta balioa – **Juan Manuel Esteban**, Plangintza eta Estrategia Zuzendaria. Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila, Eusko Jaurlaritza.
- REGCONen ekarpena EAEko eraikuntzaren clusterra sortzeko proiektura. Finlandia eta Esloveniako kasuak –



Begoña Sánchez, REGCON proiektuko ikerlaria, Labein Tecnalia.

- EAEko beste cluster arrakastatsu batzuen esperientzia: GAIA – **Tomás Iriondo**, GAIako zuzendari nagusia.
- Clusterra osatzeko lan-plana – **Ignacio de la Puerta**.

3. "Berrikuntzaren kudeaketa bizitegi-eraikuntzaren sektorean" izeneko jardunaldia antolatu zen

2009ko abenduaren 11an "Berrikuntzaren kudeaketa bizitegi-eraikuntzaren sektorean" Ascobi-Bieba-ren topaketa antolatu zen.

Jardunaldiaren helburu nagusiak bi ziren:

- Berrikuntzaren kudeaketa bizitegi-eraikuntzaren sektorean izeneko gida aurkeztea;
- Sektorearen egoeraren diagnostikoa, bere jardura berritzaileari eta bere kuderaketari dagokionez, egiaztatzea.

Ekintza hauek **TEKNIKER-IK4**-k garatu ditu, **OFYDE** Consultoresen laguntzaz eta **Eraikal** programaren diru laguntzaz.

Lehenengo helburuaren barruan gida-aren aurkezpen laburra egin ze. Gida bi ataletan egituratuta dago:

- 1. liburukia: Etxebizitzaren eraikuntza-ko sektoreko enpresen berrikuntzari eta haren kudeaketari heltzeko gida praktikoa.
- 2. liburukia: "UNE 166002:2006 I+G+Baren kudeaketa: I+G+B kudeatzeko sistemaren betekizunak" araua etxe-eraikuntzako sektoreko enpresetan ezartzeko gidaliburu praktikoa.

Gidak **Eraikal**-eko webean eskuragarri daude, www.euskadi.net/eraikal. Pape-rean kopia eskuratzeko, eraikal@ej-gv

postontzi elektronikoaren bitartez eska daiteke edo **Eraikal**-eko web orriaren kontsulta aukeraren bitartez.

Bigarren helburuaren barruan, sektorearen egoeraren diagnostikoa, bere jardura berritzaileari eta bere kuderaketari dagokionez, egiaztatzea, sektorearen AMIaren zirriborroa eta azterlanaren ondorioak aurkeztu ziren, etorritakoen artean eztabaidatu zirelarik. Egiaztatze-jardunaldi honen ekarpenak egoeraren diagnostikoan erantsiko dira. Diagnostikoa **Eraikal**-eko webean eskuragarri egongo da, www.euskadi.net/eraikal.

4. Jardunaldia: "OHSAS 18001 ziurtagiriak jaso dituzte Afonvi-ko bost enpresa elkartekidek"

Abenduaren 15ean jaso zituzten ziurtagiriak Afonvi-ko bost enpresa elkartekidek. Berriki lortu dute bost enpresek OHSAS 18001 ziurtapena Seguritasun eta Osasun Sistemarekin lotuta. Hona-ko enpresa hauek ziurtatu dira:

- **Miguel Corredor**, 2003an sartu ziren kalitatea kudeatzeko sistemen munduan, K-21 ziurtapena lortzean. 2007an ISO 9001 lortu zuten, autoezarpena eginez, eta gaur egun EFQM eredua ezartzeko lanean ari dira.
- **Gertu Iturgintza**, Lea Artibai-ko eskualdeko enpresa bat da. OHSAS 18001 ziurtagiriarekin ekin dio kudeaketa-sistema ziurtatuen ezarpenari.
- **Tecman Servicios de Valor Añadido**, Afonvi-ko lehen enpresa da ISO 9001

-2003an-, ISO 14001 -2007an- eta OHSAS 18001 -2009an- sistemak bateratu dituen.

- **Saneamientos Arrandi**, Barakaldon kokatutako familia-enpresa bat da. 2001ean lortu zuten K-21 sistemaren ziurtapena eta ISO 9001 arauarekin bat egiteko lanean ari dira gaur egun.
- **Sucesores de Isaías Ortega**, 1927an hasi zen lanean. Ziurtapen honekin aurrerapauso handia eman du, 2001ean K-21 ziurtapena lortu zutenetik ekindako ibilbidean.

Santurtziko San Jorge Institutuko aretoetan antolatu zen ekitaldia eta hainbat enpresa garrantzitsutako ordezkariak eta ingurumenaren eta energia berri-energiaren esparruetako profesio-

nal adituek parte hartu zuten, AFONVI-ko enpresa elkartekideetako hainbat ordezkariarekin batera. **Gerardo Hilera**, Industriako Lurralde Bulegoko Industria Seguritasunaren koordinatzaileak banatu zituen sariak enpresetako ordezkarien artean eta, berarekin batera, **Daniel Ortega** jaunak, ziurtapenen ezarpena garatzeaz arduratu den Aser-tek Gestión aholkularitza-enpresako gerenteak, eta **Iván Rodríguez** jaunak, Enpresa Elkartearen gerenteak, zuzendu zuten ekitaldia.

Diploma-banaketarekin amaiera eman zaio AFONVIk 2009an garatu dituen jardueren aukera zabalarik; **Eraikal** eta **Osalan** erakundeekin batera, Kalitatea, Berrikuntza eta lan-arriskuen prebentzioaren kudeaketa sustatzekoa lan handia egin da urte osoan.

5. "Aribide egokien memoriaren aurkezpena" izeneko jardunaldia antolatu zen

2009ko abenduaren 3an, Gasteizen, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Herri Lan eta Garraioko Eraikuntzako Kalitatea Kontrolatzeko Laborategian "Aribide egokien memoriaren aurkezpena" izeneko jardunaldia antolatu zen. Honen helburua Aribide egokien memoriaren hirugarren edizioa aurkeztea izan zen.

Eraikuntzaren sektoreko hamabi enpresak **Eraikal**-en laguntza-programaren bitartez kudeaketa-sistema desberdinen ezarpena egitean izandako esperientzia barne hartzen da aribide egokien memorian.

Ignacio de la Puertak, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Herri Lan eta Garraioko Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol zuzendariak egin zuen jardunaldiaren aurkezpena eta koordinatzailea, **Agustín de Lorenzo**, **Eraikal** Programaren arduraduna izan zen. Hainbat esparrutako 63 pertsonak parte hartu zuten: herri administrazioa, gremioen eta enpresen elkartek, arkitektura eta aparejadoreen

elkargoak, eraikuntza sektoreko enpresak, arkitektura estudioak, kontsultoretzak eta ziurtarzeko erakundeak.

Halaber, ekitaldian parte hartu zuten:

- Instagi, Gipuzkoako Instalatzaile eta Mantentzaileen Enpresen Elkarteko **Jesús Mari Gómezek**.
- Sarkis-Lagunketa Taldeko **Luis Albak** eta **Erika Díazek**.
- Jaureguizar Promoción y Gestión Inmobiliaria, S.L.-ko **Gabriel Salaberri**.

María Paz Larrumbide, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailburuordeak, jardunaldiari amaiera eman zion, eta gainera, aitorpen-diplomak banatuko zizkien bere esperientzia aribide egokien memorian deskribatu zuten enpresei:

- **Gausark, S.L.;**
- **Hirilan, Arkitektura eta Hirigintza, S.L.P.;**

- **Sarkis-Lagunketa Taldea ;**
- **Jaureguizar Promoción y Gestión Inmobiliaria, S.L.;**
- **Construcciones Zabalandi, S.L.;**
- **Aislamientos Vascos Isovás, S.L.;**
- **Elektro Ilunbe, S.A.;**
- **Ingasca, S.L.;**
- **Seguridad Integral Gasteiz, S.L.;**
- **Sucesores de Isaías Ortega S.L.;**
- **Talleres de Fontanería y Electricidad Zabala, S.A.**
- **Tecman, SVA, S.L.**

Aribide egokien memoriaren argitalpena **Eraikal**-eko webeko argitalpen atalean jarri da, www.euskadi.net/eraikal. Paperean kopia eskuratzeko, eraikal@ej-gv postontzi elektronikoa-aren bitartez eska dezakezu edo Eraikal-eko web orriaren kontsulta aukeraren bitartez.

6. Argitalpena: “Eraikal-en hamar deialdi (1998-2008). Agente sustatzaileen esperientziak”

2009ko uztailera **Eraikal**-en Berriak 27. zenbakian aurreratu zen moduan, 2009ko azaroan argitaratu da aipatutako agiria, formatu elektronikoan bakoitza oraindik: “**Eraikal**-en hamar deialdi (1998-2008). Agente sustatzaileen esperientziak”.

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailak 1998an abiarazi zuen **Eraikal** programa, “Euskal Autonomia Erkidegoko bizitegi-eraikuntzaren sektoreko enpresetan kalitatea kudeatzeko sistemak ezartzeko eta hobetzeko laguntzen lehen programaren” aurkezpenera egin zuenean. 2001etik aurrera Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak hartu du programaren ardura eta 2008an **Eraikal** programaren hamargarren deialdia egin da.

Gero eta enpresa gehiagok parte hartzen du **Eraikal** programaren laguntzen deialdietan eta hainbat arauen arabera lortutako ziurtagiri kopurua areagotzen ari da halaber. Modu horretan, laguntza-euskarri eta erreferentzia bihurtu da **Eraikal** EAEko bizitegi-eraikuntzaren sektoreak etengabeko hobekuntza

lortzeko ekintza ibilbidean, eta enpresa-estrategiaren barruan iraunkortasuna eta berrikuntza barne hartzeko balio izan du gainera.

Enpresa-elkarteek, elkargo profesionalak eta enpresa eragileak **Eraikal** programaren lehen hamar deialdietan agente sustatzaile gisa izandako esperientziak erakusten dira agirian. Aipatutako eragile guztiak funtsezko pieza bat dira programaren barruan, administrazioaren eta diru laguntzaren onuradun diren enpresen arteko harremana errazten dutelako; sentsibilizazio-lan handia egiten dute **Eraikal** programaren helburuak aditzera emateko eta bitartekari-lanak betetzen dituzte programari berari dagokion kudeaketan, hala nola, proiektuak prestatzen direnean, horien jarraipena egitean, ordainketen kudeaketa egitean, emailak ezagutzera ematean, eta abar.

Agiri honek **Eraikal** programari buruz egindako hausnarketa erakusten du. Agiriaren aurkezpenera bat dator denboran Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak 2009ko irailean egindako hamaikagarren deial-

diarekin, eta ekimenari jarraikortasuna ematen zaio modu horretan.

Bertan adierazitako esperientziak ondo aztertzea oso garrantzitsua dela uste dugu. Izan ere, gaur egun bizitegi-sektoreko enpresek kudeaketarekin lotuta duten egoera eta 1998an zutena desberdinak dira, eta urteetan aurkeztu diren proiektuak eta urte hartan laguntzak jaso zituzten enpresen aukerak aldatuz joan dira. Horrenbestez, bizitegi-eraikuntzaren sektoreko enpresek kudeaketa, iraunkortasuna eta berrikuntza bezalako esparruetan erakutsi dituzten behar berriei erantzuteko lan egin beharko du **Eraikal**-ek aurrerantz.

Eraikal-en web-orritik behera karga daiteke agiria, www.euskadi.net/eraikal

Eraikal-ek etorkizunean egin beharreko lanaren inguruan hausnartzeko, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak foro bat prestatu nahi du **Eraikal**-en web-orrian. Hala ere, bien bitartean, agiriari buruz dituzuen iruzkinak gure web-orrira bidal ditzakezue, Kontsultak/Iradokizunak atalera, www.euskadi.net/eraikal edo kontsulta-postontzira, eraikal@ej-gv.es.

7. Aholkularitza enpresek eraikali buruz duten iritzia

27. aldizkarian hasitako ekimenarekin bat egin da eta oraindik ere aholkularitza-enpresei **Eraikal**-i buruz duten iritzia galdetu zaie. Aurreko aldizkarian Ope Consultores enpresaren iritzia jaso zen moduan, oraindik **Pertruiza** enpresari galdetu zaio. Ez ahaztu: **Eraikal**-en lan egin duen edozein aholkularitza-enpresak bere iritzia eman dezake **Eraikal** aldizkarian, kontsulten postontzi elektronikoaren bitartez edo **Eraikal**-en web-orriko kontsulten atalean, www.euskadi.net/eraikal.

Zer proiektu aurkeztu duzue Eraikal-en deialdietan?

Mónica de Miguel: ISO 9001, ISO 14001 eta OHSAS 18001 arauak ezartzeko proiektuak garatu ditugu. **Eraikal**-en barruan egin genuen lehen proiektua eta jada kalitate-ziurtagiriaren enpresa batean (**Eraikal Bat** 1998-2000) ISO 9002 araua ISO 9001:2000 araura egokitzeko izan zen. Hortik aurrera kalitate-proiektu desberdinak garatzen hasi ginen eta aurrerapen handia lortu da ingurumena eta laneko segurtasuna eta osasuna barne hartzen dituzten sistema bateratuak lortzeko lanean.

Eraikal bezalako ekimenek Euskal Autonomia Erkidegoko bizitegi-eraikuntzaren sektoreko enpresetan kalitatea, iraunkortasuna, segurtasuna eta berrikuntza sustatzen laguntzen dutela uste al duzu?

Mónica de Miguel: Bai, zalantzarik gabe. Benetan lagungarria da Eusko Jaurlaritzak kudeaketa-sistema ziurtagarriak sustatzeko politikak garatzea, izan ere, enpresek kalitatearekin eta segurtasunarekin erlazionatutako gaien inguruan arreta handiagoa jartzeko balio du, bai eta ingurumena gehiago errespetatzen duten lan-jarraibideak

garatzeko ere. Gainera, diru laguntzak ematen badira, benetan errazago egiten zaie enpresei sistemaren ezarpena egitea, oso zaila gertatzen baita, batzuetan, finantzaketa propioarekin bakarrik egitea. Horren erakusle garbia da EAEko eraikuntza-enpresen kopuru altua, beste autonomia-erkidego batzuekin alderatuta.

Nola baloratzen dituzu Eraikal programaren hamar edizioak?

Mónica de Miguel: Balorazioa positiboa da, gero eta proiektu gehiago aurkeztu dira eta enpresa eta jarduera gero eta anitzagoak ezagutu ditugu.

Lehen urteetan eraikuntza-enpresekin lan egiten genuen. Urteekin enpresa osagarriekin egin dugu lan, eta gas-hondeaketa eta -instalazioen esparruan zein elektrizitatearen esparruan jardun dugu. Hori dela eta, hasiera batean Bizkai eta Gipuzkoako eraikuntza-enpresen elkartearen bitartez, **Asco-bi-Bieba** eta **Ascongi**, kudeatzen ziren proiektuak, eta **Eraikal**-en azken deialdietan, **Ave-Bie**-Bizkaiko Hondeaketa Enpresen Elkartearekin eta **Aeieb**-Bizkaiko Instalatzailerik Elektriko eta Telekomunikazioetako Enpresen Elkartearekin egin da.

Pertruisa-k **Eraikal**-en barruan burutu dituen proiektuen bolumenari dagokionez, deialdi batetik bestera ugartuz joan da kopurua, eta 2009ko azaroan, guztira 95 proiektu garatu dira eta 75 enpresa inguruk parte hartu dute.

Eraikal-en zer alderdi positibo azpimarratuko zenuke?

Mónica de Miguel: Alderdi positiboen artean, diru laguntzak berez enpresei egiten dien ekarpen handiaz gain, beste programa batzuekin alderatuta,

honako alderdi hauek azpimarra daitezke:

1.- Metodoa: Programaren onuradunak elkarteak direnez, izapidetze-lanak erraztu egiten zaizkie programan parte hartzen duten enpresei. Horregatik, hain zuzen ere, oso positiboa deritzot **Asco-bi-Bieba**, **Ascongi**, **Ave-Bie** eta **Aeieb** moduko elkarteek **Eraikal**-en barruan egiten duten lanari.

2.- Enpresei ezarpen-proiektu bat gauzatzeko uzten zaien denbora: ez da urtebetera mugatzen. Diruz lagun daitekeen inbertsioa gauzatzeko epeak ere ez du mugarik, hasiera batean, izan ere, urte osoan edo aurreko deialdia amaitzen denetik egindako gastu guztiak estaltzen ditu diru laguntzak, hau da, epea ez da hasten Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den unean. Ondorioz, arau baten ezarpena egiteko prest dauden enpresek ez dute oztoporik edo mugarik inbertsioa deialdia argitaratu aurretik egiteko.

3.- Eta alderdirik azpimarragarriena, hamaika deialdietan programak izan duen jarraikortasuna da. Horri esker, bolumen oso handia lortu da eta sektoreko mota orotako enpresak, mikro enpresak barne hartuta, erakartzea lortu da.

Zer alderdi hobe daiteke Eraikal-en?

Mónica de Miguel: Oro har ondo dago. Zerbait aipatzeagatik, eskaera egiteko epea zabaltzeko aukera aipatuko nuke.

Etorkizunera begira zer ekintza-lerro barne hartu beharko lituzke Eraikal-ek?

Mónica de Miguel: Informazioaren Segurtasuna Kudeatzeko Sistema bat (ISO 27000) garatzea, erabiltzen den informazio guztia nahikoa bermearekin erabiltzeko eta tratatzeko. Abantaila nagusia enpresa baten informazio-aktiboak galeren edo baimendu ez diren sarreraren aurrean babesteko balio duela da. Beste alderdi bat, EB markaketak dira. Sektorearen beharrak kontuan hartu behar dira une oro.



Mónica de Miguel, Pertruisa-ko gerentea. 1999an ekin zitzaion enpresan aholkularitza-jardunari. Hasiera bate-

an software-zerbitzuen eskaintzari heldu zioten eta, beranduago, aholkularitzaren esparruan espezializatzea erabaki zen. Bezeroaren berariazko beharrak eta tamaina kontuan hartzen dituen zerbitzua eskaintzera bidean, ISO 9001, ISO 14001 eta OHSAS 18001 arauen ezarpenean laguntza pertsonalizatua eskaintzen lan egin du Pertruisa-k, eta 2009ko azaroa arte 325 proiektu baino gehiago garatu ditu 270 enpresa edo erakundetan.

Itaun postontzia



eraikal@ej-gv.es

"ERAIKAL BERRIAK" informazio-aldezakariak postaren bidez jaso nahi baduzu zure eskaera itaun-ontziaren bidez "eraikal@ej-gv.es"-era Hartzaile, Enpresa eta Helbidea adierazten.